

Proiektuaren deskribapena

Gu, Ibaizabal ikastolako ikasleak gara eta ikerketa batzuk egin ondoren, elkarte bat sortzea erabaki dugu, hain zuzen haurrengan zentratutako elkarte bat sortu dugu.

Gure elkarteak behar bereziak edo zehatzak dituzten haurrak laguntzea du helburu, adibidez, motrizitatearekin, ikusmenarekin, entzumenarekin... etab lotutakoak.

Zerbitzu edo laguntza hauek emateko, hainbat baliabide erabiliko ditugu, adibidez, web orri bat, profesional zehatzen laguntza... etab.

Erakunde hau sortzea erabaki dugu, gure inguruan zerbitzu honen inguruko beharra asetu gabe dagoela ikusten dugulako. Erakunde edo elkarte hau sortu aurretik, zerbitzu hauen beharra ikertu dugu, hau da, benetan behar diren edo ez ikertu dugu eta ikerketa horren ondorioz, zerbitzu hauek beharrezkoak direla baieztatu dugu. Beraz, horregaitik erabaki dugu elkarte hau sortzea, haurrek dituzten behar zehatzak asetu ahal izateko.